



MUSIKA

Badatoz XXI. mendeko sorginak



Sua taldeko kideak Bizkaiko Maruri-Jatabekoak dira.



ORDU BELTZAK SUA

AIRAKA, 2019

IKER BARANDIARAN

Suak baditu ezaugarri bereizgarri batzuk oso indartsuak direnak. Suak energia dakar, suntsitu dezake, baita txarrak kendu eta onak ekarri ere. Argitasunarekin ere badu lotura zuzena, baita beroa ematearekin ere, babesarekin. Horiek guztiak ditu laukote honek.

Maruri-Jatabeko (Bizkaia) talde gazte hau indartsua da eta egungoa eraldatzeraz dator orain arteko eragin askoren errautsen gainetik bere eskaintza birsortuz. Urte eta erdiko epean Gaztea maketa lehiaketa irabazi eta Bilbao BBK Live jaialdian ere parte hartu du eta kontzertu ugari ematen dabil.

Taldea Ane Barrenetxea (ahotsa), Janire Lopez (baxua eta teklatua), Julen G. Wright (gitarra) eta Esteban Gabiriak

(bateria) osatzen dute. Lehenengo biak Dekot taldearen hastapenetan arituak, eta Gabiria Educados taldean.

Aurten *Sua* izeneko lau abestiko EPA kaleratu dute, eta oraintxe *Ordu beltzak* izeneko lan luzea. Irekita daude estilo askotara eta energia zein samurtasunak, biak, dituzte. Euskara –beraien ama hizkuntza– eta ingelesa –entzuten dutenaren isla– dira aukeratutako hizkuntzak, eta bai batean zein bestean emaitza oso aberatsa da, betea, Anek ingeleserako ere dikzio oso txukuna dauka-eta.

Introan Belako gogora ekarri didate nahiz eta pieza are eta ilunagoa izan. *1021* misteriosua da, melodikoa, indartsua, itsaskorra eta baita ere Riot Grrrl-en eskolakoa. *Ordu beltzak*-en nabarmentzen da Anen ahotsa eta roc-

karekin, indiearekin eta grungearekin dantza egiteko erritmoak jartzen dituzte. *Reddish*-ek edaten du Pixies jostarienetatik eta oso-oso melodikoa da. *Zapatu gaua II* hazten doa –gaua bezala– intentsitatez eta melodia borobil-borobilez. *Shake it out* misteriosua da, intrigako erritmoekin eta ia-ia orkestrala bilakatzen da. *Euri gabe, lorerik ez* dantzagarriena eta zirikatzaileena da, new wave gitarra eta guzti. *Shame* indartsua da, riff rockeroekin, eta punk-rocketik barrena ia dark-technoan amiltzen da. *Gau(ero)* bizkaieraz xuxurlatutako kantu post-rock minimalista erakargarria da. Eta, bukatzeko, *Cliff* pieza ederra, pop eta post giroetan blaituta eta barrenak hustuzetik daukana... A ze interpretazioa! ●